



MAIALEN ARTEAGA  
KAZETARIA

## Barruko zera honi

**B**arruan dudana *zera* honi idatzi nahi-ko nioke. Pandemiatik ia bost urte beteko dira, eta garai hartan gazteak ginenak hasi gara, gazte izaten jarraitzen badugu ere, bestelako espazio batzuetan orbitatzen. Etxebizitza, bizi proiektua, amatasuna, lana, osasuna... elkarrizketetako gai ordenak bestelakoak dira orain. Bost urte atzera eginez gero, nork bere bidea hartu du ("*ez beste inorena*", dio Katamalok).

Ingurura begiratu eta noizbait pentsatu izan dut, nik ere beharko nukeela suhartasuna esnatzeko moduko zaletasun propio bat, nire-nirea eta *ez beste inorena*. Zerbaitetan ona izan, kanalizatu nire kezka *krosfitean* edo beste edozein kiroletan, musikan, edo akaso, lan munduan eskalatu eta urtez urte soldata handiagoa izateko aspirazioak gida nazala hautatu. Arrakasta pertsonala bizi proiektu bezala. Errazagoa litzateke dena horrela, seguru. Pasio propio bat, *ez beste inorena*. Barruko *zera* hori haragotxo doa, ordea. Altxor bat da; munduko diskurtso distopikoek, indibidualismoaren hegemoniak edo etorkizun ezaren oratoriak lapurtu ezin didatena. Nire altxorra da, baina batez ere, beste askorena da, kolektiboa da. Militantzia politikoak eskaini didan *zera* honek mundua ulertu eta berri baten alde bidea egiteko heldulekuak eskaini dizkit. Ez dira

mundua edo Euskal Herria irakurtzeko betaurrekoak, betaurrekoak jantzi eta erantzi egiten dira eta. Orain, *zera* hori nire begiak eta begirada dira, orain ez dago ikusgairik ikuskera honetatik kanpo, eta eskerrak. Miresgarria iruditzen zait norbere zilborra baino handiagoa den zerbaitek, kolektiboa den zerbaitek, bizitza gidatzen duenean. Ariketa eta apostu iraultzailea iruditzen zait are-riotasun, lehiakortasun eta neoliberalismoaren muturreko adierazpenen lekuko garenetan, norbere burua besteen burua salbatuz salbatzen dela ulertzea. Pena ematen dit besteengan antzeko zerbait aurkitzen ez dudanean, hain da handia altxor hau... Frikizat izango naute askok, zerbaitetan sinistea, amestea eta proiektu politiko eta kolektibo bati en-gaiatzea ez baitago modan, ez du *hype*-ik sortzen. Baina, ez gara ari korrontearen kontra igerian korrontearen kontra igeri egite hutsagatik, korrontea gure alde jartzeko baizik.

Eskerrak militantzia politikoari, eskerrak nire zilborrera begiratzean herri bat ikustera eraman nauen eskola kolektiboari, eskerrak nirea den eta aldi berean beste askorekin batera konpartitzen dudana etxeari. "*Guk erabakia hartu dugu. Orain ekidin ezin dezakezuen zerbait gara*", dio Mikel Sotok. Eta hori ikusten naiz, ez beste inon. ●

## Ikusezin



LEIRE NARBAIZA  
ARIZMENDI  
IRAKASLEA

**T**abernan zaude, barran, eskatu nahian. Mostradoarean beste pertsona batzuk ere berdin. Laster izango da zure txanda, baina zuri tokatu arren, zerbitzariak ez dizu galdetu ea zer nahi duzun, salto egin dizu eta zure atzean etorri den gizona atenditu du. Ergel aurpegia geratu zaizu, eta kamareroaren atentzioa zureganatu nahi duzu, urruntzen ari zaizulako. Atzera ere paso egingo duen susmoa duzu. Ikustezina zara berriro ere.

Film eta telesailetan protagonista roletan ez da adin batetik aurrerako andrazkorik egoten, bigarren mailako paperak betetzen dituzte agertzekotan.

Badirudi mundutik desagertu direla emakume horiek, ostenduta baleude legez. Ikustezin bihurtu dira.

Jakinekua da adin batera iritsita emakumeok ikusezin bihurtzen garela, edo ikusezin bihurtzen gaituztela. Menopausiaren bueltan gertatzen da, hortik aurrera ez ei gara desiragarri eta.

Gaiean gandu moduko bat ezartzen zaigu, lanbrotuta lagatzen gaituen geruza ukiezina, ikusezin bihurtzen gaituena. Superboterea omen da, baina infra-ahalmendun bilakatzen gaitu, ikustezintasunak ezdeustu egiten gaituelako.

Ikusgarriak gara, ordea. ●